

Adi ibili sareko iruzurrekin

Gaur egun internet bidez ia edozer egin dezakegu, eta oso modu erosoan, baina adi ibili beharra dago sarean egiten dizkiguten iruzurrekin. Gai hori abiapuntu hartuta, ariketa hauek egingo dituzu:

- Elkarrizketa entzun eta galderen erantzun zuzena aukeratu.
- Gomendioak ematen: esaldiak osatu.
- Artikulua irakurri eta bertako zenbait hitz dagokien baliokidearekin lotu.
- Azken ataza: zuri edo beste norbaiti egindako iruzurra ahoz kontatu eta gomendioak eman.



Entzun ondoren galderei erantzun

E-postaz jasotzen ditugun mezuetan edota whatsapp-ekoetan era guztietako iruzurrak egiten dira, batzuetan. Elkarrizketa honetan Maite Goñik hainbat adibide eta aholku emango dizkigu. Entzun ondoren, aukeratu galdera hauen erantzun zuzena.



Errenta-aitorpenaren iruzurrean zein motatako mezuak aipatzen dira?

- Datu batzuk zuzentzeko Ogasunak dirua kobratuko digula.
- Akats batengatik Ogasunak dirua itzultzea tokatzen zaigula.
- Herritarraren akats batengatik Ogasunak dirua kobratuko duela.

Eta iruzur horren truke zer lortzen dute?

- Gure kontu-korronterako sarbidea.
- Gure zenbait datu: izena, txartelaren zenbakia, txartelaren irautitze-data...
- Zenbait datu pertsonal: izen-abizenak, lanbidea, kreditu-txartelaren pasahitza...

Zenbait iruzurretan "Premium MSM" sistema aktibatzen da. Nola egiten dute iruzur hori?

- Web orrialde berezi batean gure gure izen-abizenak emanda.
- Mezu elektronikoen bidez gure datu pertsonalak eskatuta.
- Webgune faltsu batean sartu eta norberaren erabiltzailea eta pasahitza emanda.

Maitek zenbait gomendio eman ditu. Hauetako zein ez da aipatu?

- Estamentu ofizialek edo bestelako erakundeek bidalitako e-mailetatik ihes egin.
- Inoiz jaso ez ditugun SMS-ei baja eman lehenbailehen.
- Susmo txikienaren aurrean kontsumo-bulegoan salaketa egin.

Baldintza jokatu gabea: esaldiak osatu

Elkarrizketa amaieran Kontxik aholku hau eman du: "zerbait aktibatzen baldin baduzu, SMS-ren bat edo..., operadorearekin hitz egin behar duzu zuzen-zuzenean". Hau beste era honetara adieraz dezakegu: "... aktibatu**Z GERO**, ... operadorearekin hitz egin beharko zenu**KE**". Egitura hau landuko duzu. Horretarako, beheko esaldiak osatu behar dituzu, ereduan bezala.

BALDINTZA JOKATU GABEA: -(E)Z GERO + BEHAR(KO)... KE

Nola osatzen da?

Aditz-partizipioari -(e)z gero erantsita. Egitura hau baiezko perpausekin baino ez da erabiltzen.

Zein funtzio du?

Baldintzaren ondorioan BEHAR(KO) + ...KE erabiltzen dugunean, gomendioa ematen ari gara. Egoera horren aurrean zer egin beharko litzatekeen edo ez litzatekeen adierazten, alegia.

- Norbaitek lan-eskaintzak bidali**Z GERO**, kontuz ibili behar**KO** zenu**KE**.
- Ordainketa egin nahi izan**EZ GERO**, web orrialde seguruan egin behar**KO** zenu**KE**te.
- Web orrialde susmagarria dela ikusi**Z GERO**, ez zenu**KE** hor sartu **BEHARKO**.

0 Mezu horiek jaso. Zerbitzuari lehenbailehen baja eman.

Mezu horiek jasoz gero, zerbitzuari lehenbailehen baja eman beharko zenioke.

1. Zure mugikorrean jaso duzun mezua susmagarria dela (iruditu) _____ , (zuk) lehenbailehen mezu hori ezabatu _____
2. Lan-eskaintza egin dizuen enpresa ezaguna (izan) _____ , (zuek) berarekin fidatu _____
3. Kontuz! Web-orrialde hori ez da fidatzekoa. Bertan sartu eta zure datuak (eskatu) _____ , datu horiek (zuk) ez _____ eman beharko.
4. Zure lagunek ekaitza datorrela (entzun) _____ , (beraiek) etxean geratu _____
5. Pello ez da fidatzeko; (zuei) laguntza (eskatu) _____ , (zuek berari) ez _____ kasu egin beharko.
6. Kontuz! Gaur eguzkiak gogor jotzen du. Erre zarela (ohartu) _____ , berehala (zuk) nire krema hau eman _____

Hitzen baliokideak lotu

Testu honetan bati egin zioten iruzurra kontatzen da. Irakurri ondoren, erreparatu beheko esaldietan azpimarratuta dauden hitzen esanahiari. Hitz horiek dagozkien baliokidearekin lotu behar dituzu.

Kontuz iruzurgileek Interneten jarritako amuekin

Asierrek bere bankuaren e-posta jaso du. Azken asteetan jaso duen hirugarrena da jada. Aurreko bietan, bankuko hainbat eskaintzen berri eman diote eta eskaintzak zehaztasun handiagoz ikusteko bankuko web orrialdera bidali dute. Asierrek begiratu bat eman die eskaintzei. Oraingoan, ordea, mezu larriagoa bidali dio bankuak: “X Bankuko web-orrialdean sartu berri dira eta zure datuak aldatu dituztela uste dugu. Egiaztatu ditzagun, mesedez, ondorengo helbide honetan klikatu eta norbait sartu ote den baieztatu”. Asierrek klik egin du emandako helbidean eta itxuraz honek bere bankuaren web- orrialdera eramane du. Web-orrialdean, bere kode ezkutua eta gainerako datuak sartu ditu, kontu guztiak behar bezala dituen jakiteko.

Eta jaso duen erantzuna hauxe izan da: «Ezin izan da zure eskaera gauzatu. Zerbitzua ez dago erabilgarri. Beranduago saiatu. Barkatu eragozpenak». Azken mezu horren benetako esanahia, ordea, bestelakoa da, beldurgarriagoa: iruzurgileak baditu nahi zituen datu guztiak eta horietaz baliatuz dirua eskuratu ahal izango du Asierren bankutik. Izan ere, klikatutako helbideak bere bankuarena dirudien arren, ez da hala; eta web-orrialdeak bankuarena badirudi ere, faltsua da.

Halako kasuen aurrean, oinarrizko araua argia da: ez eman inoiz datu pertsonalik web-orrialde batean, bertara zuk zeuk idatzitako helbide elektronikoaren bidez iritsi ez bazara -hots, «hemen klikatu» horiek arriskutsuak izan daitezke-. Bankuaren promozio handiren bat, egiaztapen arrunt bat edo arazo teknikoak iragartzen dituzten mezuak ere internauta engainatzeko aitzakia izan daitezke. Halaber, iruzurgileak bere harrapakinaren profila egin ohi du: hasieran, esaterako, mezua 100.000 erabiltzailereri bidaliko die, gomendio edo eskaintza faltsuren bat eginez eta kasu egiten dietenekin jarraituko du lanean. Azkenerako, agian berrogeiren konfiantza baino ez du bereganatuko eta datu pertsonalak eskatzen dituen e-posta horiei baino ez die bidaliko. Amua irensten badute, lan arrakastatsua izango da iruzurgilearentzat.

www.argia.eus web ataritik hartua. Testu moldatua.

Testuko hitza

Baliokidea

Denda horretan ederki engainatu gaituzte.

Txutxu-mutxu, esames.

Egiaztatu beharra dago zure daturik lortu ote duten.

Promozio

Saltzaileak gure konfidantza bereganatu nahi zuen gure datu pertsonalak lortzeko.

Iruzurgile

Bankuko sustapen horien bidez engainatu egiten gaituzte.

Baieztatu, ziurtatu.

Trikimailu asko erabiltzen dituzte gu engainatzeko.

Eskuratu

Era horretan engainatzen gaituztenek zigorra merezi dute.

Tranpa

Engainu hauen harrapakinaren profila tipikoa izaten da.

Biktima

Whasapp-en bideo-deiak aktibatuko ote dituzten zurrumurrua dabil.

Norbaiti ziria sartu.

Hitz egin zure esperientziaz

Aurreko testuan Asierri egin zioten iruzur baten berri izan duzu. Zuri edo ezagun bati gertatu zaizue antzekorik? Orain horretaz hitz egingo duzu.

Aukera baduzu, jarri taldean eta kontatu ondokoari ze iruzur egin zizuten. Behean bi adibide daukazu. Ondoren, horrelako kasu baten aurrean kontuan hartzeko aholkuren bat eman behar duzu. Behean dituzu adibideak.

- Zer gertatu zen?
- Ze trikimailu erabili zuten? Nola engainatu zintuzten?
- Eta zein izan zen ondorioa?
- Honelako iruzur baten aurrean ze aholku emango zenuke? Adibidez:
 - Mezu susmagarriak ikusiz gero, lehenbailehen ezabatu beharko genituzke.
 - Gure datu pertsonalekin kontuz ibili beharko genuke.



IRUZUR-ADIBIDEAK

* Behin IKEAtik mezu bat bidali zidaten mugikorrera. Mezuan inkesta bat betez gero 200 euroko deskontu-kupoiak jasoko nituela esan zidaten. Inkestan era guztietako datu pertsonalak eskatu zizkidaten. Nik sano-sano inkesta bete eta bidali egin nien, baina ez dut inongo kupoirik jaso.

* Ba nire alabari herenegun whatsapp-era mezu bat bidali zioten. Hauxe esan zioten: bideo-deiak doan egin nahi izanez gero "bideo-deiak aktibatu" estekan klik egin behar zuela. Berak klik egin orduko SMS premium zerbitzua aktibatu omen zuen. Hurrengo hilabetean 350 euroko telefonoko-faktura iritsi zitzaion. Ia bihotzekoak eman zion gaixoari.

Zuzenketa-orria

Entzun ondoren galderei erantzun

1. Errenta-aitorpenaren iruzurrean zein motatako mezuak aipatzen dira?

✓ Akats batengatik Ogasunak dirua itzultzea tokatzen zaigula.

2. Eta iruzur horren truke zer lortzen dute?

✓ Gure zenbait datu: izena, txartelaren zenbakia, txartelaren iraungitze-data...

3. Zenbait iruzurretan "Premium MSM" sistema aktibatzen da. Nola egiten dute iruzur hori?

✓ Webgune faltsu batean sartu eta norberaren erabiltzailea eta pasahitza emanda.

4. Maitek zenbait gomendio eman ditu. Hauetako zein ez da aipatu?

✓ Susmo txikienaren aurrean kontsumo-bulegoan salaketa egin.

Baldintza jokatu gabea: esaldiak osatu

Ikus adibidea: Mezu horiek jaso. Zerbitzuari lehenbailehen baja eman.

Mezu horiek jasoz gero, zerbitzuari lehenbailehen baja eman beharko zenioke.

1. Mugikorrean mezu susmagarriak (jaso) (jasoz gero), (zuk) lehenbailehen mezu hori ezabatu (beharko zenuke)

2. Web orrialde horretan (sartu)(sartuz gero), (zuek) helbidea zuzena den begiratu (beharko zenukete)

3. Sare sozialetan lan-eskaintzak (jaso) (jasoz gero), (guk) horiei (ez genieke) kasu egin beharko.

4. Zure lagunek ekaitza datorrela (entzun)(entzunez gero), etxean geratu (beharko lukete)

5. Pello ez da fidatzeko; (zuei) laguntza (eskatu)(eskatuz gero), ez (zeniokete) kasu egin beharko.

6. Kontuz! Gaur eguzkiak gogor jotzen du. Erre zarela (ohartu)(ohartuz gero), berehala nire krema hau eman (beharko zenuke)

Hitzen baliokideak lotu

Testuko hitza

Denda horretan ederki engainatu gaituzte.

Egiaztatu beharra dago zure daturik lortu ote duten.

Saltzaileak gure konfidantza bereganatu nahi zuen gure datu pertsonalak lortzeko.

Bankuko sustapen horien bidez engainatu egiten gaituzte.

Trikimailu asko erabiltzen dituzte gu engainatzeko.

Era horretan engainatzen gaituztenek zigorra merezi dute.

Engainu hauen harrapakinaren profila tipikoa izaten da.

Whasapp-en bideo-deiak aktibatuko ote dituzten zurrumurrua dabil.

Baliokidea

Norbaiti ziria sartu.

Baiez tatu, ziurtatu.

Eskuratu

Promozio

Tranpa

Iruzurgile

Biktima

Txutxu-mutxu, esames.

Transkripzioa

Entzun ondoren galderei erantzun

ESATARIA.- Gorka Julio, kaixo, egunon.

GORKA.- Kaixo, egunon.

ESATARIA . Ondo?

GORKA.- Oso ondo.

ESATARIA.- Gaur Maite Bilbora joan zaigu, Maite Goñi, hola

MAITE.- Egunon.

ESATARIA. Bueno kontua e-mailetan oraindik ere, nahiz eta oso oso mezu eta aholku oinarritzkoa izan, edozein gauzetan klikatzen dugula askok , ze errenta aitortpena egiteko garaian gaude eta Maite hori da zuk gaur aipatu nahi diguzun gaia. Eta ari dira bidaltzen ogasunekoez bidalitako e-mailak balira bezala, eta batzuetan ipinita gaiaren leihotxoan “ arazoa duzu errenta-aitortpenarekin, edota “ Ogasunak dirua itzuli egingo dizu”, orduan “itzuli” ikusi eta derrepente klik eta gero birusa sartzen zaigu.

MAITE.- Bai, eta bueno kasu honetan hori da e bueno e, phishing-a deitzen zaio horri, eta phishing-a da nola edo hala lortzea zure datuak, e askotan izan liteke SMS baten bidez edo korreo baten bidez, edo e, edo dei baten bidez baita e? telefonoz, eta kontua da pasatzen direla ba, egiten dituztela plantak ba beste nonbaitetik idatziko balute bezala, ez? Kasu honetan, errenta-aitortpenaren iruzurra hortxe dabil, e baina ez da aurtengo kontua. Behin baino, ba beti, kanpaina abian jartzen denean, ba iruzur hau ere kanpainen jartzen da. Eta orduan zuk esan duzun bezala, aitzaki horrekin eskatzen dizute, e tokatzen zaigula edo errore bat egin dugu eta tokatzen zaigu itzultzea zuri dirua, eta orduan sartu behar duzu ba zure, eskatzen dizkizute zure datu guztiak, ba izena, txartelaren zenbakia, iraungitze-data, horrelako gauzak.

GORKA. Uf.

MAITE.- Eta bueno, horrelakoren bat beti beti kontuan izan behar dena da, inoiz e estamentu erakunde ofizialek, edo aseguru etxeek edo horrelakoez inoiz ez dituztela datuak e-mail bidez, korreoz postaz eskatzen, horietatik baina ihes egin, baina azkar azkar.

ESATARIA. Bai.

MAITE.- Badabil beste bat ere orain hortxe oso modan egun hauetan, whatsapp-aren ez dakit jaso duzuen, sare sozialetan eta mugikorretan ari da hedatzen e? Whatsapp-eko bideo-deiak aktibatu egin direla. Iritsi zaizue zerbait?

GORKA.- Ez.

MAITE. - Mezuren bat? Ba bueno, ba jendea nola normala den gero eta gehiago ba, orain dela gutxi dei normalak ere zabaldu ziren whasapean, bueno orain dela denbora pixka bat eta orain dabil ba zurrumurrur hori gaituko dituztela bideo-deiak whasapp-en, baina oraindik ez dago eta orduan horren izenean edo horren atzetik iruzurra. Eta orduan e egiten da hori aprobetxatuz jasotzen duzun horretan, aktibatu jartzen dizue: “ bideo-deiak aktibatu orain”, eta hori klikatuz ba whasappen sartzeko aukera ematen dizute eta hau da phishingaren beste e barietate edo beste aldaera bat ez? Farming deitzen zaiona; orduan eramaten zaitu webgune batera berdin, berdin, berdina dena, osea kopia bat, baina helbidean eta hori ikus liteke ez dela justu berdina eta orduan hor sartzen dituzu zure pasahitza eta zure erabiltzaile izena normal, ba whasapp-en arituko bazina bezala eta aktibatzen dutena da “Premium” SMS, kasu honetan e? iruzur honetan SMS “Premium” zerbitzua bat, eta orduan gero iristen zaizkizu SMS-ak eta ordaindu egiten duzu.

GORKA.- Eta gero horrelako iruzurren bat jasan ostean nola garbitu dezakegu? Nola atera gaitzake egoera horretatik?

MAITE.- Hori da. Adibidez e zerbait aktibatzen baldin baduzu SMS-ren bat edo horrelakoren bat operadorearekin hitz egin behar duzu zuzen-zuzenean; iristen baldin bazaizu ba hori egin eta gero holako SMS batzuk ez dituzunak inoiz edo jasotzen, ba operadorearekin baja emateko. Baina, klaro zuk ja aktibatu egin duzu eta zure datuekin aktibatu duzu.